

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Gure zerbitzuaren berri eman eta ezagutzera emateko hainbat baliabide erabiliko ditugu; hala nola, gure webgune pertsonala, Zumaiako Baleike aldizkaria, herrian zehar itsatsitako kartel fisikoak, gure enpresaren sare sozialak eta aldian-aldiko herrian eginiko ekitaldiak.

Komunikazio kanal garrantzitsuena izango dena Instagrameko eta Facebookeko kontuak izango dira, honekin herritarren ahoz-ahoko komunikazioa egongo dela bermatuko dugulako. Bertan, gure dantza taldearen informazioa, ekitaldiak eta argazki eta bideoak txertatuko dira, betiere ikasleen edota hauen gurasoen baimenekin. Horrela, Zumaiako biztanleek gure lanak ikusteko gauizango dira. Bestalde, gure udako eta neguko promozioen berri ere jakingo dute bezeroek sare sozial hauen bidez.

Gainera, zalantzarik izanez gero hauek argitzeko Whatsapp chat bat izango du, helbide elektronikoa bitartez kezka helarazteko aukera egongo da eta, noski, ahoz komunikatzea nahiago dutenentzat telefono zenbaki bat jarriko da eskuragarri.

Bestalde, sare sozialetan murgiltzen ez diren pertsonekin ere komunikazioa bermatzeko helburuarekin, eta, halaber, kale presentzia irabazteko asmoarekin, herrian zehar dauden informazio paneletan eta beste hainbat leku estrategikotan gure kartelak itsatsiko ditugu. Kokapen estrategiko hauek, adibidez, liburutegia, pentsiodunen egoitza, ikastetxeak ala kafetegiak izan litezke.

Azkenik, gure presentzia handiagoa izateko nahiz herrian nahiz sare sozialetan, gure herriko Baleike aldizkariaren laguntza beharko dugu. Proiektua hasieran ezezaguna izango denez, aldizkarian gure izena eta proposamenak idatzita agertzeak gure bezero potentzial gehienei gure sorreraren inguruan informatzeko balioko du.